
aek
22.korrika
HITZEKIN
Amurriotik Donostiara
2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era
HITZEKIN
ABESTIA
korrika.eus

# FITXA TEKNIKOA

**Korrika edizioa: 22 (2022)**
**Leloa:** ***Hitzekin***
**Zuzendari artistikoa: Nerea Urbizu**

# ABESTIA

Izenburua: **Hitzekin**
Hitzak: **Sustrai Colina**
Musika: **Nerea Urbizu**
Abeslariak: **Ane García, Anari, Nerea Urbizu**
Musikariak:
**Ander Zulaika**: bateria
**Itsaso Etxebeste**: baxua
**Eñaut Gaztañaga**: gitarrak
**Nerea Urbizu**: pianoa
Grabaketa estudioa: **Gaztain estudioa** (Zestoa)
Nahasketa eta masterizazioa: **Eñaut Gaztañaga**



# BIDEOKLIPA

Ekoizpena: **Tripulante Produce**
Errealizazioa eta edizioa: **Eymard Uberetagoena**
Kamerariak: **Diego Azanza**
Laguntzaileak: **Itsasne Ezkerro**
Ekoizle laguntzaileak: **AEK-Korrika**
Aktoreak: **Lekunberriko Ibarberri eskolako 4. mailako ikasleak, Ainara Unanua Arizmendi, Mikel Unanua Arizmendi, Omar Diop, Maddi Egiguren, Laia Igerategi, Itziar Ituño, Ramon Agirre, Begoña Ajuria Blanco, Mikaela Elizalde.**
Estrak: **Baionako Bernat Etxepareko ikasleak (Laia Igerategi, Maddalen Duny-Pétré, Maddi Egiguren, Unax Egiguren, Itzal Aranzabal, Kattalin Harrispuru Diribarne, Garikoitz Agirre, Ainara Larralde, Lore Larralde), Aizarotz herria**

Bideoko irudiak honako tokietan grabatu dira:
Aizarotz
Baiona
Basauri
Baztan
Donostia
Iruñea
Lekunberri
Ondarroa

Eskerrak:
Lekunberriko Haur Eskola eta Elena, Ibarberriko 4. maila, Ion Arretxea Unanuari belazea eta traktorea uzteagatik, Aizarotz herria, Ondarroako Kofradiako Angel, Antiguako AEK.

# HITZEKIN (Sustrai Colina)

**Hitzekin, hitzekin, hitzekin...**
**Oinetakoak lotu**
**(e)ta utzi oinei libre,**
**belarretan ortozik**
**bilakatzen bide.**
**Mapetatik harago, mundu asko dago.**
**Sentitutakoa...**
**Sentitu (e)ta hitzekin.**

**(e)Ta berriro egin**
**Korrika zurekin,**
**arantzak erauzteko elkarren ederrez.**
**(e)Ta berriro egin**
**mundua zurekin...**

**Euripean kantari**
**ibiltzen ikasi;**
**ez egon atertu zain**
**(e)ta korrika hasi.**
**Berdin da non hasten den, orain beti da hemen.**
**Pentsatutakoa...**
**Pentsatu (e)ta hitzekin.**

**(e)Ta berriro egin**
**Korrika zurekin**
**arantzak erauzteko elkarren ederrez.**
**(e)Ta berriro egin**
**mundua zurekin**
**beti baitago norbait hitz ekiteko prest.**

**ENTZUN ABESTIA**

**IKUSI BIDEOKLIPA**

**Hitzekin, hitzekin, hitzekin....**

**Neguko eguzkitan**
**erantzi azala;**
**beti ziur dago(e)nak**
**duda sor dezala.**
**Bizitza jendea da (e)ta jendea gara.**
**Sentitu, pentsatu...**
**Sentitu, pentsatu, hitzekin.**

**Hitzekin, hitzekin, hitzekin...**
**Zurekin....Hitzekin, zurekin....**